Nafarroako Kanpoko Ebaluazio Estandarizatuak

EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA

2025-2026 ikasturtea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako

2. maila

Jarduteko protokoloa

AURKIBIDEA

1. 2025-2026 IKASTURTEKO BERRITASUNAK 3

2. APLIKAZIOA ETA ZUZENKETA 3

2.1 Aplikazioaren egutegia 3

2.2 Probak jasotzea eta zaintzea 3

2.3 Probak betetzea 4

2.4 Aldez aurreko prestaketa 4

2.5 Aplikazioa 4

2.6 Zuzenketa 6

2.7 Koadernoak gordetzea 6

3. SALBUETSITAKO IKASLEAK, EGOKITZAPENAK DITUZTENAK ETA BERTARATU GABEAK 7

3.1 Ebaluazio-probak nork eginen dituen 7

3.2 Salbuetsitako ikasleak 7

3.3 Egokitzapenak dituzten ikasleak 7

3.4 Curriculum egokituko programan (CEP) ari diren ikasleak 8

3.5 Probaren egunean etorri ez diren ikasleak 8

4. DATUAK SARTZEA ETA TXOSTENAK SORTZEA 9

4.1 Ikasleak matrikulatzea eta datuak sartzea 9

4.2 Egiaztatzea 10

4.3 Ikasleen txostenak 10

4.4 Ikastetxearen txostena (PDF bertsioa eta CSV bertsioa) 11

4.5 Emaitzak TABLEAUn kontsultatzea 12

5. KONPETENTZIA BAKOITZERAKO JARRAIBIDE ESPEZIFIKOAK 14

5.1 Gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia 14

5.2 Euskarazko hizkuntza-konpetentzia 15

5.3 Ingelesezko hizkuntza-konpetentzia 16

6. ESKER ONA 17

I. ERANSKINA – MATRIKULA ETA SALBUESPENAK 19

II. ERANSKINA - EGOKITZAPENEN ERREGISTROA 23

III. ERANSKINA - JARDUKETEN EGUTEGIA 25

1. 2025-2026 IKASTURTEKO BERRITASUNAK

1. APLIKAZIO DIGITALA
   Gaztelaniazko Hizkuntza Konpetentzia proba eta **Matematikarako Konpetentzia** proba (gaztelaniaz zein euskaraz) formatu digitalean egingo dira. Aplikazio-egutegia ez da aldatuko, eta laster emango da behar den informazio guztia.
   Gainerako probak aurreko ikasturteetan egin ziren formatu berean egingo dira.

2. **Euskarazko Hizkuntza Konpetentzia** eta **Gaztelaniazko Hizkuntza Konpetentzia** probetako "Ekoizpen idatzia" ariketari dagokionez, orain arteko "Hasierako planteamendua" atala ez da bete beharko. Ikusi 5.1 eta 5.2 atalak.

3. **Ingelesezko hizkuntza-konpetentzia** proba egiteko, ikasleek 70 minutu izango dute (orain arte, 60 minutu zuten). Horrela, Hizkuntza Konpetentziako hiru proben iraupena (gaztelania, euskara eta ingelesa) berbera izango da, 70 minutukoa.

4. EDUCAN MATRIKULARI DAGOKION PANTAILAREN ITXURA ALDATZEA (ikusi **I. eranskina**).

5. Pasa den ikasturteko berritasunak gogoratu:

   - SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA: EDUCAn egingo da ikasleak matrikulatu ahala. Xehetasun gehiago 3.2 atalean. (Egokitzapenen erregistroak lehengo formatu bera izanen du).

   - ERANTZUNAK ETA KALIFIKAZIOAK SARTZEKO PROZESUA EGIAZTATZEA.

     4.2 atalean deskribatu da zuzendaritzak nola gainbegiratu dezakeen zuzentzeko eta erantzunak eta kalifikazioak sartzeko prozesua, ziurtatzeko datu guztiak EDUCA plataforman jasota daudela epea bukatutakoan.

2. APLIKAZIOA ETA ZUZENKETA

2.1 Aplikazioaren egutegia

Ikasturte-hasierako jarraibideetan adierazi zen bezala, DBHko 2. mailako ebaluazio diagnostikoa **2026ko apirilaren 17an, 20an eta 21ean** eginen da. Probak honela banatuko dira:

Apirilaren 17a, ostirala	Apirilaren 20a, astelehena	Apirilaren 21a, asteartea
EUSKARAZKO hizkuntza-konpetentzia	MATEMATIKARAKO konpetentzia	GAZTELANIAZKO hizkuntza-konpetentzia
	ZIENTZIARAKO konpetentzia	INGELESEZKO hizkuntza-konpetentzia

2.2 Probak jasotzea eta zaintzea

Aurreko ikasturteetako prozedura erabiliko da eta zuzendaritza-taldeko edozein kidek edo eskuordetzen den konfiantzazko edozeinek jasotzen ahalko ditu probak (sinadurak kontrolatuko dira jasotzean):

- Lizarra, Lekaroz, Tafalla eta Tuterako ILZei atxikiriko ikastetxeek probak dagokien ILZaren egoitzan jaso beharko dituzte, **2026ko martxoaren 23, 24 eta 25ean**.

- Iruñeko ILZari atxikiriko ikastetxeek **Hezkuntza Departamentuko** Arga aretoan jasoko dituzte probak (beheko solairua), 08:00etatik 15:00etara, **2026ko martxoaren 23, 24 eta 25ean**.

- Irakasleentzako Laguntza Zentro (ILZ) horiei atxikitako ikastetxeren batek probak Iruñean jaso nahi baditu, edo ez dagokion beste ILZ batean, **posta elektronikoz (evaledu@navarra.es) jakinaraziko dio Ebaluazio Atalari, beranduenez 2026ko otsailaren 27an**.

KOADERNOAK EGIAZTATZEA. Ikastetxean, jasotako materiala egiaztatuko da. Egiaztatuko da jasotako koadernoen kopurua bat datorrela aplikazioko hizkuntzarekin eta matrikulen kopuruarekin. **INOLA ERE EZIN DIRA IREKI KOADERNOAK BILTZEN DITUZTEN PLASTIKOAK, EZTA PROBEN EDUKIA KONTSULTATU ERE**. **2026ko apirilaren 1a (asteazkena)** izanen da azken eguna Ebaluazio Atalari zeinahi gorabehera jakinarazteko.

Zuzendaritza-taldeak proba hasteko **ordubete edo gutxiago** falta denean emanen dizkie irakasle aplikatzaileei proba bakoitzerako behar diren koaderno guztiak. Koadernoek paketatuta egon beharko dute, eta proba hasteko unean irekiko dira.

Irakasle aplikatzaile eta zuzentzaileek erabat isilpean gorde beharko dute proben edukia, **2026ko maiatzaren 13**ra arte. Egun horretatik aitzina probak aske eta irakasleen eskura geldituko dira.

2.3 Probak betetzea

Honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Ikasleek boligrafo urdina edo beltza erabiliko dute.
- Zientziarako eta Matematikarako konpetentziako probetan kalkulagailua erabiltzen ahalko da.
- Zirriborro-orriak: ez dira jasoko.
  - Zientziarako eta matematikarako konpetentziako probetan, ikasleek orri zuriak erabiltzen ahalko dituzte eragiketetarako, baina **oharrak ebaluazio-koadernora pasatu beharko dituzte** galderak irekiak direnean eta urratsak edo planteamenduak eskatzen direnean.
  - Ingelesezko hizkuntza-konpetentziako proban, ikasleek zirriborro-orriak erabiltzen ahalko dituzte probaren lehen zatian oharrak hartzeko (*listening* edo entzumena).
  - Gaztelaniazko, euskarazko eta ingelesezko hizkuntza-konpetentziako proban, ikasleek zirriborroak egiteko tokia dute nahitaez bete beharreko koadernoan, baina zirriborro-orri gehiago erabiltzen ahalko dituzte nahi izanez gero.

2.4 Aldez aurreko prestaketa

Zuzendaritza-taldeak protokolo hau irakasle aplikatzaileen esku utzi beharko du, aplikatzen hasi baino 72 ordu lehenago, gutxienez. Nolanahi ere, gomendatzen da taldean aztertzea bai protokoloa, bai ebaluazio-prozesu osoaren plangintza.

Arreta berezia jarriko da ingeleseko probaren aplikazioan; izan ere, audio-erreproduzigailua erabili behar da, eta jarraibide espezifikoak ditu (ikus 5. atala); baita gaztelaniako eta euskarako probetan ere, protokolo honetan jarraibide espezifikoak baitaude horietarako ere (ikus 5. atala).

Ikastetxeek egokitzat jotzen dituzten argibideak eman eta ikasleak motibatzeko neurriak hartuko dituzte, proba guztian onarpenezko eta lanerako giro egokia sortzearren.

2.5 Aplikazioa

1. Ikastaldeari eskola ematen dioten irakasleek aplikatu beharko dituzte probak, **baina beren irakasgaiak ez du zuzeneko loturarik izanen une horretan ebaluatzen ari den konpetentziarekin.**

2. Aurreko hori betetzerik ez dagoenean, ebaluaturiko ikastaldeari eskolarik ematen ez dion irakasle batek aplikatu dezake proba.

3. Aplikazioan zehar, irakasle aplikatzaileak konpromisoa hartuko du protokolo honetan dauden jarraibideei zorrotz jarraitzeko, eta ez du emanen proben, galderen edo testuen edukiari buruzko argibide, ñabardura eta interpretaziorik. Aplikatzailearen eginkizuna da errespetuzko eta bakarkako lan-giroa bermatzea, eta ikasleei honako hauen antzeko mezuak emanen dizkie: *"irakur ezazu arretaz", "jarraitu lanean", "galderaren bat ulertzen ez baduzu, segi hurrengoak egiten eta, gero, saiatu berriro", "baduzu errepasatzeko denbora"*… Haren lana behar bezala betetzeko, irakasleak ikasgela zaindu behar du proba nola garatzen den ikusteko, ikasleek arretaz lan egin dezaten eta duten denbora ahalik eta hobekien aprobetxatu dezaten.

4. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die proba oso garrantzitsua dela, Nafarroako ikasle guztiak egiten ari direla eta ahalik eta ongien egiten saiatu behar dutela, tutoreak gurasoei emaitza emanen diela ekainean, eta abar. Sentsibilizazio-lan hori oso garrantzitsua da ikasleen inplikazioa eta ahalegina sustatzeko, eta ikastetxean aurreikusitako lan-planaren arabera egin daiteke.

5. Aplikatzaileak jakinaraziko die, halaber, ikasgelan egon behar dutela proba bukatu arte, eta, lehenago bukatuz gero, nahi dituzten zereginak egiten ahalko dituztela, isiltasun erabatekoan betiere.

6. Aplikatzaileak zerrenda bat izanen du taldeko ikasle guztiekin, baita salbuetsita dauden ikasleen erregistroa ere. Zerrenda irakurriko du, **bertaratu ez direnen berri** jasoko du, eta, salbuetsita dagoen ikasleren batek proba eginez gero, S letra (salbuetsia) idatziko du koadernoan proba bukatutakoan.

7. Bermatuko du ikasleen mahaien artean behar besteko tartea dagoela, lana banakakoa izan dadin. Hori hala dela bermatuko du saio guztian zehar.

8. Dena prest dagoenean, koadernoen paketea ireki eta koadernoak banatu beharko ditu. Azaleko datuak betetzeko esan ondoren, probaren koadernoan dauden jarraibideak irakurriko ditu; hor adierazten da galdera irekiak daudela, eta baita itxiak ere, eta azken horietan erantzun bat hautatu behar dutela (A, B, C edo D). Esanen die, orobat, galdera irekietan galderaren ondoren dagoen gune librean idatzi behar dutela erantzuna, eta matematikarako eta zientziarako konpetentziako probetako ariketetan behin eta berriz azpimarratuko du problema ebazteko urratsak edo planteamendua idatzi behar dituztela, galderaren izenburuan hala eskatzen bada.

9. Ingelesezko, gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-konpetentzien kasuan, protokolo honen 5. atalean adierazten den bezala jokatuko du; hortaz, jarraibide horiek arretaz irakurri behar dira aplikazioa egin baino lehen.

10. Ikasleen zalantza orokorrak argituko ditu, eta adieraziko die bakarka egin beharko dutela lan; zerbait ulertzen ez badute, berriz ere irakurtzeko eskatuko die, edo ondoko galderara pasatzeko. Ikasleek proba egin bitartean noiznahi berrikusten ahalko dituzte aurreko galderak.

11. Behin zalantza guztiak argitu ondoren, arbelean idatzi behar da proba zein ordutan hasi den eta zein ordutan bukatuko den. Honako hau da probak egiteko gehieneko denbora:

    - **Zientziarako konpetentzia eta matematikarako konpetentzia:** 60 minutu (benetako denboraz ari gara, jarraibideak irakurtzeko edo azaltzeko hartutako denbora ez da 60 minutuetan kontuan hartzen).

    - **Gaztelaniazko, euskarazko eta ingelesezko hizkuntza-konpetentzia:** 70 minutu (benetako denboraz ari gara, jarraibideak irakurtzeko edo azaltzeko hartutako denbora ez da 70 minutuetan kontuan hartzen).

12. Egokitzapenak behar dituen ikasleren bat egonez gero, aplikatzaileari behar bezala jakinaraziko zaio nola eta norekin jardun behar duen. Horretarako, garrantzitsua da protokolo honen 3.3 atala irakurtzea. Arreta berezia behar duten ikasleak sentikortasunez eta arretaz tratatu behar ditu.

13. Behin proba hasita, aplikatzaileak ez du bestelako argibiderik edo erantzunik emanen, eta probaren edukiari buruzko galderarik egiten badiote, galdera berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko gomendatuko die.

14. Bukatzeko 10 minutu falta direnean, denbora-tarte hori dutela adieraziko die ikasleei.

15. Probaren denbora bukatzean, aplikatzaileak koaderno guztiak bilduko ditu, eta ikastetxeko jarraibideak beteko ditu bertaratu gabeko ikasleek proba beste une batean egin dezaten eta probak zuzendu daitezen.

16. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak proben aplikazioaren kalitate-kontrola eginen du, ikastetxe batzuk ausaz hautatuta. Ikuskatzailea aplikazio-saioan egonen da eta protokolo hau betetzen dela kontrolatu eta egiaztatuko du. Probak egoki zuzendu diren ere egiaztatzen ahalko da.

2.6 Zuzenketa

EPEMUGA. Zuzenketa amaitzeko azken eguna **2026ko maiatzaren 13a** (asteazkena) izanen da.

IRAKASLE ZUZENTZAILEAK. Ahal dela, proba egin duten ikasleei eskolarik ematen ez dieten irakasleak arituko dira zuzentzaile, eta honako profil hauek izanen dituzte:

Proba	Irakasle zuzentzaileen profila
Gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-konpetentzia	Gaztelania edo Euskarako irakasleak, edo hizkuntzaren eta gizartearen arlokoak.
Matematikarako konpetentzia	Matematikako irakasleak edo zientziaren eta matematikaren arlokoak.
Zientziarako konpetentzia	Zientzietako irakasleak (Fisika eta Kimika edota Biologia eta Geologia), edo zientziaren eta matematikaren arlokoak.
Ingelesezko hizkuntza-konpetentzia	Ingeleseko irakasleak

ZUZENKETARAKO KOADERNOAK. Proba bakoitzak zuzenketarako koaderno bat du, eta hor agertzen dira erantzun zuzenak eta galdera irekietan jarraitu beharreko irizpideak. Koaderno horiek ikastetxearen eskura jarriko dira Hezkuntza Departamentuan (https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto), hemen: **Gaiak ➔ Ebaluazioa ➔ Kanpokoa ➔ Nafarroako Kanpoko Ebaluazio Estandarizatuak ➔ Bigarren Hezkuntza ➔ 2025 2026 ikasturtea ➔ Zuzenketarako koadernoak.**

Koadernoak **pasahitz baten bidez** babestuko dira. Ikastetxeko zuzendaritzari pasahitz hori emanen **zaio 2026ko apirilaren 15ean** (Ikus III. ERANSKINA).

Aplikazioko egun bakoitzean, 14:00etatik aitzina, departamentuaren webgunera igoko dira egutegi ofizialaren arabera aplikatu diren probak zuzentzeko koadernoak, irakasleak zuzentzen hasi daitezen. Ikaslearen erantzuna zuzenketa-irizpideekin alderatu ondoren, irakasle zuzentzaileak ikaslearen koadernoan jarriko du puntuazioa edo behar den kodea (0, 0,5, 1, 2…).
Galdera itxiak ez dira zuzendu behar. Kasu horretan, ikasleen erantzunak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira, eta automatikoki emanen zaie puntuazioa.

2.7 Koadernoak gordetzea

Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren abenduaren 2ko 363/2021 Ebazpenaren arabera, zuzendutako koadernoak ikastetxean gordeko dira 2029ko ekainaren 30era arte, eta egun horretatik aurrera suntsitzen ahalko dira. Egun horretara arte, Ebaluazio Atalak koadernoak eskatzen ahalko ditu, aztertu egin beharko balitz ere ea zuzenketa-irizpideak baliozkoak izan diren eta irizpide horiek zuzen eta modu homogeneoan erabili diren.

3. SALBUETSITAKO IKASLEAK, EGOKITZAPENAK DITUZTENAK ETA BERTARATU GABEAK

3.1 Ebaluazio-probak nork eginen dituen

Orokorrean, DBHko 2. mailako ikasle guztiek egin beharko dituzte proba hauek, Hezkuntzaren Sostengu edo Errefortzuarekin (HE) eta Errekuperazio Programekin (ERP) ari direnak barne.

3.2 Salbuetsitako ikasleak

Egoera hauetakoren batean dauden ikasleak salbuetsita egonen dira:

a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, DBHko 2. maila curriculum-egokitzapen esanguratsuarekin edo CBU curriculumarekin egiten ari direnak.
b) Curriculum egokituko programa egiten ari diren ikasleak (gehiago jakiteko, ikus 3.4 atala).
c) Espainiako hezkuntza-sisteman berandu sartu diren ikasleak, curriculum-desfase larria dutenak (10)[1].
d) Ikasteko hizkuntza ia ez jakiteagatik zailtasunak dituzten ikasleak (08)[1].

Aurreko urteetan bezala, ikastetxeek **salbuetsitzat erregistratu** beharko dituzte ikasle horiek, **Educa bidez matrikula egiteko unean**, hots, apirilaren 17tik maiatzaren 13ra bitartean. **Educan adierazi behar da zein arrazoirengatik salbuesten diren ikasleak** (***a, b, c edo d***); hortaz, jada ez da beharrezkoa izanen eskuz betetzea salbuespenen erregistroa, protokolo honen bukaeran agertzen zena.

Salbuetsitako ikasleek ebaluazio honen xedeko probak egiten ahalko dituzte. Kasu horretan, tutorearen, orientatzailearen edo pedagogia terapeutikoko irakaslearen laguntzaz eta haren gidaritzapean egiten ahalko dituzte probak. Egindako probetan lortutako emaitzak **EDUCA aplikazioan sartuko dira ondoren banakako txostena egiteko, baina ondoko tratamendu informatikoan ez dira emaitza horiek kontuan hartuko ikastetxearen txostena egiteko**.

I. ERANSKINA – MATRIKULA ETA SALBUESPENAK eranskinean salbuespenak nola erregistratu eta matrikula nola burutu azaltzen da.

3.3 Egokitzapenak dituzten ikasleak

Egoera hauetakoren batean dauden ikasleek egokitzapenak izanen dituzte:

a) Zentzumen-desgaitasun edo mugitzeko desgaitasun larria duten ikasleak
Kasu hauetan, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroak behar diren egokitzapenak eginen ditu probaren formatuan, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Atalarekin eta ikastetxeko orientazio-departamentuarekin edo zuzendaritza-taldearekin koordinatuta, eta ikastetxeetara bidaliko ditu ebaluazioa egin aurretik.

b) Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak, 03, 04, 05, 07, 09 eta 11 kategorietakoak[2]
Kasu hauetan, egokitzapenek oinarria izango dute orientatzaileak egindako txosten psikopedagogikoan. **Egokitzapenen ondorioz, inola ere ez dira galdera gutxiago egingoen, eta ez da gehituko inolako argibide, ñabardura edo interpretaziorik proben, testuen edo galderen edukiaren gainean.** Besteak beste, honako neurri hauek hartu daitezke:

- Denbora luzatzea: kasu hauetan, gomendioa da gehienez 20 minutu gehiago ematea.
- Ikasgelan toki egokian kokatzea.
- Proba beste ikasgela batean egitea.

[1] Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen errolda eguneratzeko II. Gidakoak (2023ko ekaina).
[2] Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen errolda eguneratzeko II. Gidakoak 2023ko ekaina).

- Inguru egokia bilatzea (argiteria, akustika...).
- Egiaztatzea ikasleek ulertu dituztela proba egiteko jarraibide orokorrak eta, kasua bada, ariketa edo ataza zehatz baten berariazko jarraibideak.
- Probetako galderak irakurtzea, **eta ez besterik**.
- Egiaztatzea ikasle bakoitza proba egiten ari dela arreta edo denbora gehiegi galdu gabe.
- Ikaslearen ahalegina indartu eta estimulatzea, hari lagunduz ariketa edo proba egiten segitu dezan eta, orobat, gainbegiratuz ariketa entregatu baino lehen galdera guztiak erantzun dituela.

Aurreko egoeretako batean dauden ikasleek egokitzapenik ez dutenen **proba berak egingo dituzte**. Lortutako emaitzak EDUCA aplikazioan sartuko dira, ondoren ikastetxeko eta banakako txostenak egiteko.

Zuzendaritza-taldeak eta/edo orientatzaileak, dagokienean, probak aplikatuko dituzten irakasleei xehe-xehe adieraziko diete zer egokitzapen egin behar diren eta, hala behar denean, baita irakasle zuzentzaileei ere.

Ikastetxeek ikasle horiek erregistratu beharko dituzte egokitzapenen erregistroan (II. eranskina), behar besteko aurrerapenaz.

3.4 Curriculum egokituko programan (CEP) ari diren ikasleak

3.2 atalean adierazi den gisan, ikasle hauek salbuetsita daude, eta ikastetxeak erabakiko du probak eginen dituzten edo ez.
Ikasle hauek probaren bat egiten badute, honela jokatuko da:

a) Ikasleak barneko CEP batekoak badira, erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira banakako txostena sortzeko.
b) Kanpoko CEP batekoak badira, erantzunak **ez** dira EDUCA aplikazioan sartuko. Txostenak eskuz idatziko dira. Horretarako, ikastetxeek Hezkuntza Departamentuaren webgunean izanen dute behar den materiala, eta edozein laguntza edo argibide behar badute Ebaluazio Atalarekin jartzen ahalko dira harremanetan.

3.5 Probaren egunean etorri ez diren ikasleak

Ebaluazio-proba hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiek egin behar dituzte. Probaren egunean ez dauden ikasleek lehenbailehen egin beharko dute proba, ikastetxe bakoitzak finkaturiko errekuperazio-planaren arabera.

Epeek horretarako aukera ematen badute, erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira, eta, sartu ezean, ikastetxeak aukera izanen du probak eskuz zuzendu eta ikaslearen txostena idazteko, Hezkuntza Departamentuaren webgunean ikastetxeen eskura jarritako materiala erabiliz (erantzun zuzenak, ebaketa-puntuak eta asmatze-ehunekoak).

4. DATUAK SARTZEA ETA TXOSTENAK SORTZEA

4.1 Ikasleak matrikulatzea eta datuak sartzea

1. EPEAK. **Apirilaren 17tik** aurrera ikasleak matrikulatu eta datuak sartzen ahalko dira, eta azken eguna **maiatzaren 13a** (asteazkena) izanen da.

2. Irakasleek datuak Educan sartu ahal izateko, ezinbestekoa da ikastetxeko zuzendariak **matrikulatzea** ebaluatzen ahal diren ikasle guztiak. Menu honetan egin behar da urrats hori: **"Ikastetxearen ebaluazioa" ➔ "Ebaluazio diagnostikoa" ➔ "Ikasleak"**. Talde bakoitzaren matrikula automatikoki egiten da zuzendariak inprimakia bidaltzen duen lehen aldian (**"Bidali"** beheko botoiarekin).

3. Ikasleen koadernoak zuzendu ondoren, Educa aplikazio informatikoan sartu beharko dira bai galdera itxiei emandako erantzunak (A, B, C, D), bai galdera irekiei emandako puntuazioak (0, 1, 2...). Bi alderdi azpimarratu behar dira:

   - *Galdera itxietan*, testu-kodea sartu behar da (A, B, C, D...). Hasieran, EDE (ez du erantzuten) agertuko da euskaraz, NR gaztelaniaz (no responde), hala baitago lehenetsita. Aukera hori erabili behar da erantzunik eman ez bada, erantzun bat baino gehiago eman bada edo ez badago argi zer erantzun hautatu den.

   - *Galdera irekietan* zenbaki-kodea sartu behar da (0, 1, 2…). Zenbakizko kodetzeak ez du EDE/NR aukera onartzen. Erantzunik ez denean, 0 adierazi behar da; ez utzi hutsik.

   Halaber, zalantzak Ebaluazio Atalean argitzen ahalko dira, **evaledu@navarra.es** helbide elektronikora idatzita edo 848 42 67 98 / 848 42 71 19 / 848 42 57 26 telefonoetara deituta.

4. Funtsezkoa da ebaluaturiko ikasle guztien datuak zuzen erregistratu direla ziurtatzea, ezin baita aldaketarik egin datuak sartzeko epea bukatu ondoren.
   Tutoreak egiaztatu dezake zer dagoen Educan erregistraturik ikasle bakoitzari buruz. Era berean, zuzendariek bi formatutan ikusi dezakete informazio hori (pantaila edo CSV fitxategia), baita egiaztatu ere ikaslerik ba ote dagoen datu edo erregistro osatugabe edo hutsak dituenik. Datuak falta badira edo akatsak badaude, Educa aplikazioak ikaslearen eta ikastetxearen txostenak sortuko ditu gorabehera hori kontuan harturik.
   Dena den, Educa aplikazioak ez du uzten ezarritako epeetatik kanpora aldaketarik edo zuzenketarik egiten. Hori hala izanik ere, ikastetxeak berak **eskuz** zuzendu edo osatu ditzake txosten horiek, horretarako baliatuz aipatutako CSV fitxategiak eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean eskuragai dagoen dokumentazioa. Eskulan hori neketsua izan daiteke. Beraz, komeni da datuak sartzean akatsak edo hutsegiteak saihestea eta zuzendariek erregistratu diren datuak gainbegiratzea, aipatutako CSV fitxategia erabiliz.

5. **Salbuetsitako ikasleak** Educan identifikaturik gelditukо dira, "salbuetsita" zutabean dagokien laukitxoa markatuta. Hala, salbuetsita dauden ikasleen datuak ez dira kontuan hartuko ikastetxearen txostenean edo ikastetxeko estatistiken kalkuluan, haien erantzunak erregistratu badira ere.

6. Salbuespenez, salbuetsirik ez dauden ikasleek ezin izan badute egin konpetentzia baten edo guztien probarik, ez dira beteko Educan dagozkien erregistroak.

7. Ikastetxeko zuzendaritzak begiratuko du finkaturiko faseak eta epeak betetzen direla. Ebaluazio-faseak jarraibideei jarraikiz egiten badira, Ebaluazio Atalak aukera du horien bilakaera gainbegiratzeko eta ikastetxeen kontsultei hobeki erantzuteko.

4.2 Egiaztatzea

Zuzenketak egiteko eta erantzun eta puntuazioak sartzeko aldia hasitakoan (**apirilaren 17tik maiatzaren 13ra**), ikastetxeetako zuzendariek EDUCA aplikazioaren bidez gainbegiratu dezakete zein erritmotan ari diren zuzenketak egiten eta erantzun eta puntuazioak sartzen. Horretarako, **"Ikastetxearen ebaluazioa" ➔ "Ebaluazio diagnostikoa" ➔ "Egiaztatzea"** bideari jarraituz, honako hau ikusiko dute:



Significado de los colores
Hay exentos
Completo
Casi completo
Incompleto

NOTA: Todas las columnas salvo el Nº de alumnos se refieren a alumnos NO EXENTOS de la prueba

Nº	Sede	Titularidad	Nº alumnos	Matric.	Exentos	Responden	Informe	Hábitos cumplim.	Hoja de cálculo (CSV) Pantalla	Hoja de cálculo (CSV) Fichero	Informe de Centro (Sede)
[redacted]	[redacted]	[redacted]	105	94	0	94	94	0	P	F	informe

Pantaila-argazki honetako informazioa orokorra da, eta horri esker jakin daiteke ikastetxeko ikasle guztiak matrikulatu diren edo ez, zenbat dauden salbuetsita, eta zenbati sartu zaien erantzunen bat.

"Pantaila" (P) fitxan klikatuz gero (gezi berdearekin nabarmendua), zehatzago ikusiko dugu nola ari diren zuzenketak egiten eta erantzunak sartzen:



Datuen matrize bat agertuko da. Lerro bakoitza ikasle bati dagokio, eta zutabeetan agertuko dira egindako probetako item bakoitzeko erantzunak edo puntuazioak, baita konpetentzia eta maila bakoitzean lorturiko guztizko puntuazioak (eskuineko zutabeak).

Egiaztapen hau baliagarria da bermatzeko epea bukatzen den egunean (**maiatzaren 16a**) proba guztietako erantzun guztiak sartu direla.

4.3 Ikasleen txostenak

1. Ekainaren 8tik aurrera ikastetxeek txostenak eskuratuko dituzte, Educa aplikazio informatikoaren bidez. Txostenak soilik ekainaren 30era arte egonen dira eskuragai. Hezkuntza Departamentuaren webgunean eskuliburu bat dago, txostenak eskuratzeko jarraibideekin (Educa gida eguneratua).
   OHAR GARRANTZITSUA: gogorarazten dizuegu ikasleen eta ikastetxearen txostenak **ekainaren 30a baino lehen** deskargatu eta gorde behar direla.

2. Ikaslearen txostena eskuratzea
   Zuzendariak edo tutoreak bide hau egin behar du: **"Ikastetxearen ebaluazioa" ➔ "Ebaluazio diagnostikoa" ➔ "Ikasleak"**.
   Beharrezkoa da ikasle bakoitzaren txostena sortzea: sartu horietako bakoitzean eta sakatu **"Bidali"**. Txosten guztiak sortu direnean, guztiak batera deskargatzen ahalko ditugu **"Inprimatu"** botoia sakatuta, edo ikasle bakoitzaren atalean sartuta eta **Word edo PDF ikonoan** klik eginez. Xeheago azaltzen da **Educa gidan**.

3. Ikaslearen txosteneko informazioa:
   - Konpetentzia-mailen definizio orokorra.
   - Zer **maila** lortu den ebaluaturiko konpetentzia bakoitzean.
   - 500 puntuko batezbestekoa eta 100eko desbideratze tipikoa dituen **eskalara ekarritako puntuazioa**, konpetentzia bakoitzerako, eta haien irudikapen grafikoa.

Konpetentzia bakoitzerako, zuzenean lortutako puntuazioak 500eko eskalara ekartzen dira, adierazpen matematiko honen bidez:

$$y = 100 \cdot \frac{(x - \overline{X})}{DT} + 500$$

x da ikasleak zuzenean lortutako puntuazioa

$\overline{X}$ da Nafarroako batezbestekoa ebaluaturiko konpetentzian

DT da Nafarroako desbideratze tipikoa ebaluaturiko konpetentzian

y da 500eko eskalara ekarritako puntuazioa

Puntuazioak eskala komun horretara ekartzeak aukera ematen du konparatzeko nolako errendimendua izan duen ikasleak proba bakoitzean eta, orobat, Nafarroako batezbestekoarekin konparatzeko (Nafarroako batezbestekoa 500 da proba guztietan).
500eko puntuazioak ez du "gainditu" duenik esan nahi. Jakin badakigu puntuazio hori konpetentziaren 3. mailan dagoela (eskuarki, maila horren behealdean).

- Oharretarako gunea, tutore bakoitzak bete beharrekoa. Ebaluazio diagnostikoko txosten honen xedea da ikasle bakoitzarendako hobekuntza-neurriak hartzen laguntzea, eta badu oharrak izeneko tarte bat, egokitzat jotzen den mezua idatzi ahal izateko.

Ikaslearen txostena tresna baliagarria da ekainean familiei emateko, tutoretza-lanaren testuinguruan.
Educa aplikazio informatikoak aukera ematen du ikastaldeko txosten guztiak artxibatzeko eta paperean inprimatzeko, modu erosoan.

4.4 Ikastetxearen txostena (PDF bertsioa eta CSV bertsioa)

1. Nola eskuratu ikastetxearen txostena Educan, PDF formatuan (ikastetxeko ikasleen emaitza orokorren txostena).
   1. urratsa. **"Ikastetxearen ebaluazioa" ➔ "Ebaluazio diagnostikoa" ➔ "Ikastetxearen txostena"**
   2. urratsa. Txostena PDF formatuan deskargatzen ahalko dugu **"Txostenak"** klikatuta, edo datu-basea edo kalkulu-orria deskargatu, **"CSV"** atalean sartuta.

2. PDF formatuko txostenak informazio hau du:
   - Sarrera, irakurketa eta emaitzen barne-analisia errazteko, ISEK galdetegiari buruzko atal bat barne.
   - Ikastetxeko ikasleen emaitzak konpetentzia bakoitzean.
   - Ikasleen ehunekoa konpetentzia-maila bakoitzean.
   - Maiztasun grafikoak, puntuazio bakoitzerako.
   - Ikastetxean eta Nafarroan item bakoitzerako lortu diren erantzun zuzenen ehunekoa.
   - Taldeko batez besteko puntuazioak, zuzenekoak eta eraldatuak.
   - Batezbesteko eraldatuaren kontzeptuari buruzko azalpena.
   - Emaitzak alderatzen dituzten grafikoak, konpetentziaz konpetentzia, eskala komun batera ekarritako puntuazioekin.
   - Konpetentzia bakoitzerako *Errendimendua-ISEK* erregresio-zuzena duten grafikoak, ikastetxea zein tokitan dagoen adieraziz.

   Zuzendaritza-taldeak eta zikloak edo zikloek ebaluazio diagnostikoaren emaitzak aztertu eta baloratuko dituzte. Datuen gaineko hausnarketa egin ondoren, hobekuntza-ildoak proposatu beharko dira eta horren guztiaren berri eman beharko zaio eskola-kontseiluari.
   Ikastetxeetako zuzendariek urtez urte egiten diren ebaluazioen txostenak gordeko dituzte, formatu elektronikoan.

3. Datuen fitxategia (CSV formatuan)
   Ikaslearen eta ikastetxearen txostenez gain, Educa aplikazioak CSV formatuan dagoen fitxategi bat ere badu, eta ikastetxeko ikasleen erantzunak daude bertan, taula batean. Fitxategian informazio hau dago, konpetentzia bakoitzerako:
   - Ikasleen erantzunak. Galdera itxietan, ikaslearen erantzuna agertzen da (A, B, C, D...) eta galdera irekietan, zer puntuazio esleitu zaion (0, 1, 2...). Informazio horri esker, modu zehatzagoan aztertu ditzakegu ikasleek egin dituzten akatsak eta asmatu dituzten galderak.
   - Ikasleek erantzun ez dituzten galderak. Informazio horri esker aztertu dezakegu ikasleak zenbateraino diren gai ahalegin eta autonomia handiagoa eskatzen dituzten jarduerei aurre egiteko.
   - Lortutako puntuazio zuzena.
   - Esleitutako konpetentzia-maila.

   Datuen fitxategiak ikastetxeari laguntzen dio azterketa osagarriak egiten eta Educa aplikazioak sortzen duen txostena osatzen. Esate baterako, CSV fitxategiaren datuekin honako hau egin daiteke:
   - Konpetentzia desberdinen puntuazioen arteko korrelazioak kalkulatu.
   - Konpetentzia desberdinetako konpetentzia-mailen arteko korrelazioak kalkulatu.
   - Grafikoak egin eta ikasleen puntuazioak irudikatu, mailaz maila.
   - Korrelazioak kalkulatu konpetentzia desberdinen puntuazioen eta ikasleek barneko ebaluazioetan lortu dituzten emaitzen artean.
   - Ikasleen erantzunak eta emaitzak alderatu ikasgelaren, sexuaren eta abarren arabera.

   CSV fitxategia formatu irekiko dokumentu mota bat da, oso xumea, eta kalkulu-orrien edozein programaren bidez ireki eta maneiatu daiteke.

4.5 Emaitzak TABLEAUn kontsultatzea

Zuzendariek eta zikloko arduradunek edo koordinatzaileek ikusi dezakete informazio hau. Educaren bitartez sartu behar dute: **"Ikastetxearen ebaluazioa" ➔ "Ebaluazio diagnostikoa" ➔ "Beste urte batzuetako emaitzak"**. "Beste urte batzuk" aipatzen badira ere, ***Tableau server***ek aurtengo emaitzen ezinbesteko irakurketa eskainiko digu, baita aurreko urteetakoa ere. Honako atal hauek kontsultatu daitezke:

Honako atal hauek kontsultatu daitezke:

a) **Batezbesteko eraldatuak vs zenbatetsiak**: konpetentzia bakoitzeko puntuazioen batezbesteko eraldatuen grafikoak eta taulak, eta batezbesteko zenbatetsienak (ikastetxeak gutxienez lortu beharko zukeen puntuazioa, ISEKaren arabera), aurtengo ikasturtekoak eta azken urteetakoak.

b) **Puntuazio eraldatuaren eta zenbatetsiaren arteko aldea, konpetentzia guztietan** (aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa).

c) **Askotariko konpetentziak**: konpetentzia guztietako emaitzak batera irudikatzen dituen grafikoa (aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa).

d) **Ekitate-tasak**: 1 eta 2 mailetan dauden ikasleen ehunekoen batura; hots, maila egokia lortu ez duten ikasleen ehunekoa (aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa).

e) **Bikaintasun-tasak**: 3 eta 3+ mailetan dauden ikasleen ehunekoen batura (aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa).

f) **ISEK**: ikastetxearen indize sozioekonomiko eta kulturala, aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa.

g) **Mailak**: konpetentzia-maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa (aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa).

h) **Batez besteko puntuazioak generoaren arabera** (aurtengo ikasturtekoak eta azken urteetakoak).

i) **Erantzun zuzenen ehunekoa, galdera motaren arabera**: item guztietan zuzen erantzundakoen ehunekoa ikusten ahal dugu, Nafarroako emaitzekin alderatuta, baina eduki-multzo bereko item guztiak ere hautatu ditzakegu, edo prozesu kognitibo bereko item guztiak.

j) **Erantzun zuzenen ehunekoaren irudikapen grafikoa**, ebaluaturiko eduki-multzo bakoitzean eta prozesu kognitibo bakoitzean. Gainera, erantzun zuzenen ehunekoari dagokionez, ikastetxearen eta Nafarroaren arteko aldea ikusi dezakegu.

k) **Ikastetxearen erantzun zuzenen ehunekoen bilakaera 2021etik**, eduki-multzoen eta prozesu kognitiboen arabera, eta Nafarroako batezbestekoarekiko aldea.

Zuzendaritza-taldeak eta zikloak edo zikloek ebaluazio diagnostikoaren emaitzak aztertu eta baloratuko dituzte. Datuen gaineko hausnarketa egin ondoren, hobekuntza-ildoak proposatu beharko dira eta horren guztiaren berri eman beharko zaio eskola-kontseiluari.

5. KONPETENTZIA BAKOITZERAKO JARRAIBIDE ESPEZIFIKOAK

5.1 Gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia

Proba honetan, irakurrizko ulermena eta idatzizko adierazpena. **70 minutuko** iraupena izanen du.

Proba hasi aurretik ikasleei eman beharreko argibideak:

1. Koadernoaren azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak bi zati dituela azalduko da:
    - IRAKURRIZKO ULERMENA: 3 testu irakurri behar dituzte, eta irakurritakoarekin lotutako galderei erantzun.
    - IDATZIZKO ADIERAZPENA: testu bat idatziko dute, koadernoaren atal horretan dauden jarraibideak betez. Lan hori lotuta dago irakurrizko ulermenaren ataleko azken testuarekin.

2. Ekoizpen idatziari dagokionez, izan kontuan:
    - Lehenengo paragrafoan egin beharrekoaren azalpena egongo da.
    - Koadroan azalduko da zeri buruz idatzi behar duten ikasleek. Arretaz irakurri beharko dituzte.
    - **Zirriborroa** idazteko espazioa izango da. **Derrigorrez** bete behar dute. **Kalifikatuko zaie**.
    - **Behin betiko testua** idazteko espazioa ere badago (
    - **BERRITASUNA:** hasierako ideiak idazteko espazioa kendu da, ez dute horrelakorik idatzi behar.

Nahitaezkoa da espazio guztietan idaztea.

Une horretan sortzen ahal diren zalantzak:
- *Hiru espazioak nahitaez bete behar dira?* Bai.

- *Lerro guztiak bete behar dira?* Ez da beharrezkoa.

Proban zehar ikasleek izan ditzaketen zalantzak:
- *Nahitaezkoa da lauki urdinean eskatutako baldintzak betetzea?*
- *Segida eman behar zaio nahitaez hasierako esaldiari?* Bai.
- *"Ez dakit zer jarri zirriborroaren espazioan".* Oraindik ere behin betikoa ez den testu bat idatz dezakezue, ondoren hobetuko duzuena. Zirrimarrak egin daitezke, letra txarra erabili, esaldiak osatu gabe utzi...

5.2 Euskarazko hizkuntza-konpetentzia

Proba honetan, irakurrizko ulermena eta idatzizko adierazpena. **70 minutuko** iraupena izanen du.

Proba hasi aurretik ikasleei eman beharreko argibideak:

1. Koadernoaren azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak bi zati dituela azalduko da:
    - IRAKURRIZKO ULERMENA: 3 testu irakurri behar dituzte, eta irakurritakoarekin lotutako galderei erantzun.
    - IDATZIZKO ADIERAZPENA: testu bat idatziko dute, koadernoaren atal horretan dauden jarraibideak betez. Lan hori lotuta dago irakurrizko ulermenaren ataleko azken testuarekin.

2. Ekoizpen idatziari dagokionez, izan kontuan:
    - Lehenengo paragrafoan egin beharrekoaren azalpena egongo da.
    - Koadroan azalduko da zeri buruz idatzi behar duten ikasleek. Arretaz irakurri beharko dituzte.
    - **Zirriborroa** idazteko espazioa izango da. **Derrigorrez** bete behar dute. **Kalifikatuko zaie**.
    - **Behin betiko testua** idazteko espazioa ere badago (
    - **BERRITASUNA:** hasierako ideiak idazteko espazioa kendu da, ez dute horrelakorik idatzi behar.

Nahitaezkoa da espazio guztietan idaztea.

Une horretan sortzen ahal diren zalantzak:
- *Bi espazioak nahitaez bete behar dira?* Bai.
- *Lerro guztiak bete behar dira?* Ez da beharrezkoa.

Proban zehar ikasleek izan ditzaketen zalantzak:
- *Nahitaezkoa da lauki urdinean eskatutako baldintzak betetzea?* Bai.
- *Zer da "gaia"?* Ez dugu erantzungo.
- *Zer da "hartzailea"?* Ez dugu erantzungo.
- *"Gaia" eta "hartzailea" espazioak bete behar dira?* Bai.
- *"Ez dakit zer jarri zirriborroaren espazioan".* Oraindik ere behin betikoa ez den testu bat idatz dezakezue, ondoren hobetuko duzuena. Zirrimarrak egin daitezke, letra txarra erabili, esaldiak osatu gabe utzi...

5.3 Ingelesezko hizkuntza-konpetentzia

Jarraibide orokorrez gain, honako hauek ere hartu behar dira kontuan:

1. Hezkuntza Departamentuak **apirilaren 20an (astelehena) bidaliko dio audio-fitxategia zuzendaritza-taldeari, mezu elektroniko bat igorriz evaledu@navarra.es helbidetik.** Aplikatzaileak egiaztatu beharko du audio hori jaitsi daitekeela eta ongi entzun daitekeela ikastetxeak aukeratzen duen euskarrian.

2. **Behar bezain goiz** egiaztatu beharko da ikasgelako audio-erreproduzigailua ongi dabilela eta gelako leku guztietatik entzuten dela.

3. Aplikatzaileak azalpen guztiak taldearen ikas-hizkuntzan emanen ditu: gaztelaniaz G/A ereduko ikasleei eta euskaraz B/D eredukoei.

4. Koadernoaren azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak hiru zati dituela azalduko du:
    - *LISTENING* (entzumena): 2 aldiz entzunen da ingelesezko grabaketa bat, eta ondoren entzundakoaren gaineko galderei erantzunen zaie.
    - *READING* (irakurmena): 3 testu irakurriko dituzte ingelesez, eta irakurritakoarekin loturiko galderei erantzunen diete.
    - *WRITING* (idazmena): testu txiki bat idatziko dute, koadernoaren atal horretako jarraibideei jarraikiz. Adierazi behar zaie aldez aurreko eremu bat dutela ideiak antolatzeko, eta hori derrigorrezkoa dela, puntuatzen baita.

5. Ondoren, azalduko zaie *LISTENING* ariketa (entzumena) honela eginen dela:
    - Audioaren hasieran 2 minutuko isilunea izanen da, eta denbora horretan Listening ataleko galderak irakurtzen ahalko dituzte, aldez aurretik jakiteko gutxi gorabehera zer eskatzen zaien. **Argi eta garbi jakinarazi behar da noiz hasten den audioa, jakin dezaten bi minutuak noiz hasten diren.**
    - Ondoren, 2 aldiz entzunen dute ingelesezko grabaketa bat.
    - Entzunaldien artean 70 segundoko eten bat dago. Tarteko etenaldietan galderak erantzuten hasi daitezke, eta, hala, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri erreparatzen ahal diote.
    - Entzunaldietan oharrak hartzen ahalko dituzte, zirriborro-orrian.
    - Entzunaldiak bukatu ondoren, ikasleek dakizkiten galderak osatuko dituzte, eta proba egiten segituko dute, nork bere erritmoan.

6. Zalantzak argituta, arbelean idatziko da noiz hasi den proba eta noiz bukatuko den, kontuan hartuta proba egiteko guztira 70 minutu izanen direla, eta kontatzen hasiko dela audio-ekipoa martxan jartzen den unean. Hori argi utziko da.

7. Proba bukatzeko 20 minutu falta direnean, ikasleei denbora hori falta dela gogoraraziko die, eta iradoki, halaber, idazmenaren ariketari ekiteko (*WRITING*).

6. ESKER ONA

Ebaluazio Atalak eskerrak eman nahi dizkie ebaluazio-zeregin honetan arituko diren zuzendaritza-talde, tutore, irakasle, orientatzaile, zerbitzuetako langile, ikasle eta gurasoei.

I. ERANSKINA – MATRIKULA ETA SALBUESPENAK

3.2 atalean aipatu da matrikula egiteko unean adierazi beharko direla ikasleak salbuesteko arrazoiak, hala dagokionean. Jarraian, EDUCA aplikazioaren alderdi berria aurkeztuko da, ikasleak matrikulatzeko eta, hala badagokio, salbuesteko arrazoiak adierazteko.

1. Ikasleak matrikulatzeko, ***Ikastetxearen ebaluazioa > Ebaluazio diagnostikoa > Ikasleak*** ibilbideari jarraitu beharko zaio. Pantaila hau bistaratuko da:

2. ***Frogak*** koadroan dagokion proba aukeratuko da; ***Taldea*** koadroan, matrikulatu nahi den taldea. Pantaila hau bistaratuko da:



Ikusten denez, ikaslearen izena atzeko plano koloreztatuan agertzen da. Koloreak ikaslearen egoeraren berri ematen du. Lau dira egoerak: ikastetxean baja hartu duen ikaslea (*atzeko plano horixka*), atzerrian dagoen ikaslea (*atzeko plano urdina*), matrikulatu gabe dagoen ikaslea (*atzeko plano arrosa* – kolore hau nagusia izango da une honetan) eta ikasle salbuetsia (*atzeko plano grisa*: hau ez da une honetan agertuko, ikaslea matrikulatu ondoren baizik, eta, hala badagokio, salbuetsitzat jo ondoren ikusiko da).

3. **Matrikula** egiteko, erosoena ***Ikaslearen ID*** eremuaren ezkerreko laukia sakatzea da, denak batera hautatzeko:

Lauki hori sakatutakoan, ikasle guztiak hautaturik agertuko dira (atzerrian daudenak eta baja emanda daudenak izan ezik):



Une honetan, goian eskuinean dagoen ***Matrikulatu (xx ikasle)*** botoia sakatu behar da eta ekintza baieztatuko da agertuko den menuan:



4. Onartu ondoren, pantaila berrituko da, eta ikasleak atzeko plano zurian agertuko dira (matrikulatu diren seinale):



5. Dagokion kasuetan, **Salbuespenak** erregistratzeko honela jokatu behar da:
   a. ***Salbuetsita*** zutabeko ikonoan (arkatza) sakatuta, menu berri bat zabalduko da eta salbuesteko aurreikusitako lau arrazoiak bistaratuko dira:



b. Salbuetsiko den ikaslearen ezaugarrien arabera, salbuespenaren arrazoia(k) adieraziko d(ir)a eta ***Onartu*** sakatuko da:



c. Une horretan, salbuetsitako ikaslearen atzeko plano zuria gris bilakatuko da (kolore horrekin erraz identifikatuko dira salbuesteko arrazoiren bat adierazi zaien ikasleak). Hau izango da pantailaren itxura salbuetsiak adierazitakoan matrikulazio-epea irekita dagoen bitartean:



Probak egin ondoren, ***Erantzunak*** botoia (eskuinean) sakatuta ikasleen erantzunak eta puntuazioak sartu ahalko dira.

II. ERANSKINA - EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

Ebaluazio diagnostiko zentsala, 2025-2026 ikasturtea

DBHko 2. maila

EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

Ikastetxea: .....

☐ Jar ezazu "X" soil-soilik ikastetxean ez bada egokitzapenik behar duen ikaslerik.

Egokitzapenen erregistroa				
	Taldea	**Izen-deiturak**	**Egin beharreko egokitzapena**	**Datuak Educan erregistratzea (Bai / Ez)**
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
6.				
7.				
8.				
9.				
10.				

*** Erregistro hau ikastetxean gorde behar da (ez da Ebaluazio Atalera bidali behar).**

III. ERANSKINA - JARDUKETEN EGUTEGIA

OTSAILA						
AL	AR	AZ	OG	OR	LR	IG
						1
2	3	4	5	**6**	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

MARTXOA						
AL	AR	AZ	OG	OR	LR	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	**24**	**25**	26	27	28	29
30	31					

- **Otsailaren 6a**: materiala beste ILZ batean jaso nahi dela adierazteko azken eguna.
- **Martxoaren 23a, 24a eta 25a**: probak jasotzea eta jasotako materiala egiaztatzen hastea (ikus 2.2 atala).

APIRILA						
Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
		1	2	**3**	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	**17**	18	19
20	**21**	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

- **Apirilaren 1a**: materiala egiaztatzean ikusitako gorabeherak jakinarazteko azken eguna (ikus 2.2 atala).
- **Apirilaren 15a:** proba bakoitza egiten den egunaren bukaeran zuzenketa-koadernoa eskuragarri jarriko dugu Hezkuntza Departamentuko web-gunean, eta zuzenketa-koaderno guztiak deskargatzeko gakoa posta elektronikoz igorriko da data honetan.
- **Apirilaren 17a, 20a eta 21a**: proben aplikazioa.
- **Apirilaren 17a**: ikasleak matrikulatzeko epea hasiko da (maiatzaren 13an bukatuko da).
- **Apirilaren 20a**: ingelesezko hizkuntza-konpetentziako probako audioa igorriko da posta elektronikoz.
- Proben aplikazioak egin ondoren, galderak zuzentzeko eta erantzunak eta puntuazioak EDUCAn sartzeko epea hasiko da (epea **maiatzaren 13an bukatuko da**).
  OHAR GARRANTZITSUA: proben aplikazioan esku hartuko duten irakasleek (zuzendaritza-taldea, aplikatzaileak eta zuzentzaileak) **isilpean gorde beharko dute erabat** proben edukia, maiatzaren 13ra arte.

MAIATZA						
Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	**13**	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

- Galderak zuzentzeko eta erantzunak eta puntuazioak EDUCAn sartzeko epea.
- **Maiatzaren 13a**: erantzunak eta puntuazioak EDUCAn sartzeko azken eguna.

EKAINA						
Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	**30**					

- **Ekainaren 8tik 30era:** ikastetxearen txostenak eta ikasleen banakako txostenak bistaratu eta deskargatzeko epea.